Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 7a, ostirala — 107 — Viernes, a 7 de junio de 2019

ZARAUZKO UDALA

Errotaberri industria sektoreko 2A partzelaren xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.

2019ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko martxoaren 4an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Pukas Surf SL sozietateak (orain Olatuberri SL) abiarazi zuen xehetasun azterketari, Errotaberri industria sektoreko 2A partzelan eraiki nahi duen eraikinaren lerrokadurei eta bolumenari egokitzeko.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Alegazio-idatzi bat aurkeztu zuten eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak informatu zuen.

Partzela, Olaga errekaren polizia gunearen barruan dago. Txostena eskatuko zitzaion URA-ri; bi hilabete pasa dira eta ez da txostena jakinarazi.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak

ERABAKIKO DU

Lehenengoa. Ezestea Urraga Etxearen bizilagunek aurkeztu duten alegazioa kontsideratu delako industria eraikinak izango dituen lerrokadura berriak etxebizitza-eraikinaren egoera hobetu egiten dutela bien arteko distantzia handitu egin delako.

Dena den, adieraztea industria-pabilioiaren jarduera-proiektuak aztertu eta jaso beharko ditu neurriak jarduera industrialari zerbitzua (zamalanak) emango dien ibilgailuek eragin ditzaketen eragozpenak gutxiagotzeko.

Bigarrena. Behin betiko onespena ematea Errotaberri industria sektoreko 2A partzelaren xehetasun azterketari; Pukas Surf SL/Olatuberri SL sozietateak abiarazi du espediente hori.

Onartutako dokumentua 2019ko maiatzekoa da; Borja Peña arkitektoak sinatu du.

Hirugarrena. Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian jakitera emango da.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2019ko maiatzaren 31.—Alkatea. (3682)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

Estudio de detalle de la parcela 2A del sector industrial Errotaberri. Aprobación definitiva.

La Junta del Gobierno Local del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 20 de mayo de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 4 de marzo de 2019, aprobó inicialmente el estudio de detalle promovido por la sociedad Pukas Surf SL (ahora, Olatuberri SL) para adaptar las alineaciones y volumen del edificio que quiere construir en la parcela 2A del sector industrial Errotaberri.

El expediente fue expuesto a información pública. Se presentó un escrito de alegaciones que fue informado por el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente.

La parcela, está dentro de la zona de policía de la regata Olaga. Se solicitó informe a URA; han transcurrido 2 meses sin que se haya notificado el informe.

Previo análisis y deliberación del expediente, la Junta de Gobierno Local

ACUERDA

Primero. Desestimar la alegación presentada por los vecinos de Urraga Etxea por considerar que las nuevas alineaciones de la edificación industrial mejoran la situación del edificio de vivienda por aumentar la distancia entre ambos.

No obstante, manifestar que el proyecto de actividad del pabellón industrial deberá analizar y contemplar medidas para minorar las molestias que pudiera producir el tráfico de vehículos que darán servicio a la actividad industrial (carga y descarga).

Segundo. Aprobar definitivamente el estudio de detalle la parcela 2A del sector industrial Errotaberri promovido por la sociedad Pukas Surf SL/Olatuberri SL.

El documento aprobado es el de mayo de 2019, suscrito por el arquitecto Borja Peña.

Tercero. Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente, el acuerdo se dará a conocer en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 31 de mayo de 2019.—El alcalde. (3682)

EK\CV GAO-I-2019-03682